

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bakioko Udala****Bakioko Udaltzaren 2020ko otsailaren 27ko Erabakia, (Bakea) SR-2 eremua dela-eta.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 442/2013 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokionez, urriaren 17ko 436/2019 epaia eman du (2019ko urriaren 24an jaso zen udaletxean), eta honela dio xedapen-zatian:

Baietsi egin behar dugu Francisco Fontán Zubizarreta, Juan Elexpuru Arteche, Jon Anitua Arteche eta Rafael Arteche Heraulten ordezkariak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta baliogabetzat jo Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 16ko 2657/2013 Foru Agindua, 2013ko apirilaren 30eko BOEn argitaratua (80. zk.), SR. Bakea bizitegi-lurzoru urbanizagarriari dagokionez, Bakioko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzkoa.

Epai horren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, SR2-Bakea sektoreari aplikatu beharreko hirigintza-antolamendua aldaketaren aurreko arau subsidiarioetan jasotakoa izango da (2003ko urritik indarrean dauden udalerriko arau subsidiarioetan jasotakoa).

Dagoen jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren 2013ko ekainaren 19ko epaia, 2016ko martxoaren 2koa, Auzitegi Gorenaren 2013ko abenduaren 13ko epaia eta 2011ko urriaren 18ko epaia), plan orokorraren erabateko deuseztasunak horretatik eratorritako planei eragiten die, eta, beraz, haren ondorio baliogabetzaileak haren garapenean onartutako plan eratorrietara hedatzen dira, garapen-plan horien arau-izaera dela eta.

SR-2 Sektoreko arau subsidiarioen aldaketa horren babesean, udal bidean plan partzialaren aldaketa idatzi eta onartu zen, eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onartu zuen martxoaren 28ko 526/2011 Foru Aginduaren bidez.

Goian aipatutako jurisprudentzia-ildoari jarraituz, onartutako plan partzialaren aldaketaren deuseztasuna hura babesten zuen arau subsidiarioen aldaketaren deuseztasunaren ondorio da, salbu eta plan partzialaren aldaketa horrek berriro indarrean dagoen plan orokorrarekin (gure kasuan, arau subsidiarioak) bat badator.

Esku artean dugun kasuan, udal-teknikariak emandako informaziotik ondoriozta daitekeenez, nahiz eta 2011ko plan partzialaren aldaketaren zenbait alderdik «berpiztutako» 2003ko hirigintza-araudian estaldura izango luketen, zenbait alderdik ez dute hala-korik, eta, beraz, goragoko araudia urratzen dute.

Udaleko zerbitzu juridikoen txostena kontuan hartuta, Bakioko Udaltzaren, legezko zinegotzi-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin (EH Bildu taldeko 5 zinegotzianak eta Bakiobai taldeko 2 zinegotzianak), honako erabaki hau hartu du:

SR.2 Bakea sektoreko arau subsidiarioen aldaketa baliogabetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 436/2019 epaiaren ondorioz, honako hau gertatzen dela:

Lehena: Deuseztatutako arau subsidiarioak aldatu aurreko hirigintza-antolamendua SR.2 Bakea sektoreari aplikatzea, hori baita Bakioko udalerriko hirigintza-plangintzako arau subsidiarioetan ezarritakoa. Izan ere arau horiek Bizkaiko Foru Aldundiak (GFA) onartu zituen abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez (2002ko urtarrilaren 14ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua), eta 2003ko urriaren 2tik dago indarrean.

Bigarrena: Deuseztatutako arau subsidiarioen aldaketa garatzeko BFAk martxoaren 28ko 526/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2.Bakea Sektorearen Plan Partzialaren aldaketa ezin da aplikatu; horren ordeztuz, BFAk uztailaren 9ko 1047/2004 Foru Aginduaren bidez onartutako SR.2 Sektorearen Plan Partziala aplikatu behar da, 2004ko abuztuaren 3an argitaratutakoa 148. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Izan ere,



2004ko Plan Partziala 2003ko urritik indarrean dauden Bakioko hirigintza-plangintzaren arabera egin zen.

Hirugarrena: S.R.2 sektorean eraikitako eraikinak abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez onartutako Arau Subsidiarioetara egokitzen ez badira, eraikin tolerantzat joko dira, aipatutako Arau Subsidiarioen 19. artikuluko 1. atalean adierazitako baldintzak betetzen direlako. Honela dio:

Eraikin toleratuaren egoeraren barruan sartzan dira lerrokaduragatik, altueragatik edo aprobetxamenduagatik plangintzara egokitu ezin diren eraikin, erabilera eta instalazioak, baina dokumentazio grafikoan ez dira berariaz aipatzen aurreko artikuluan araututako egoeraren batean.

Aurkaratzeko bideak

Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 52.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua ipini ahal izango da administrazio bideari behin betiko amaiera ematen deuston egintza honen kontra (29/1998 Legearen 25.1. artikulua eta 39/2015 Legearen 123.1. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Bilboko Auzitegian; hori egiteko epea hilabete bikoia izango da (29/1998 Legearen 46.1. artikulua), iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den bihamunetik zenbatzen hasita.

Dena dela, aitatutako errekurtsu judizialari ekin orduko, berraztertze errekurtsua ipini ahalgo zaio ekintza ebatzi duen organoari berari (39/2015 Legearen 123.1. artikulua) hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. artikulua), iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den bihamunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik ipini, harik eta berraztertze errekurtsua ebatzi edo haren presuntziozko ezespina izan arte (39/2015 Legearen 123.2. artikulua); ezespina hori horrela gertatzen da hilabete igarotzen denean ebazpena jakinarazi gabe (39/2015 Legearen 124.2. artikulua).

Dena dela, hori guztiori ez da eragozpena izango ondo deritzozun beste edozein helegite edo aurkaratzeko bidea aurkezteko.

Bakion, 2020ko ekainaren 29an. — Alkate, Amets Jauregizar Baraiazarra